

ENERGI ITURRIAK

Energi Iturriak, gizakiok energia lortzeko erabiltzen ditugun natura baliabideak dira.

Bi motatakoak izan daitezke:

Energia iturri berriztaezinak:

- Naturatik ateratzen ditugu.
- oso azkar kontsumitzen dira.(Agortu daitezke)
- oso poliki berritzen dira.
- kutsatzen dute
- Adibideak: petroleoa, ikatza eta gas naturala.

Energi iturri berriztagarriak:

- Naturatik lortzen ditugu.
- Ez dira agortzen.
- Zentral elektrikoetan erabiltzen dira energia lortzeko.
- Ez dute kutsatzen.
- Adibideak: Eguzkia(Eguzki energia), haizea (Energia eolikoa) eta ura (Energia hidraulikoa).

Ariketak:

1. Idatzi X, laukitxoan esaldia zuzena bada.

- a) Energi iturri berriztagarriek asko kutsatzen dute.
- b) Eguzkia eta haizea energia berriztaezinak dira
- c) Energia berriztaezinak, azkar kontsumitzen dira eta agortu daitezke.
- d) Energi iturri berriztaezinak ez ditugu naturatik ateratzen.
- e) Eguzkiak, haizeak eta urak ez dute kutsatzen.
- f) Petrolioa , ikatza eta gasa energia berriztaezinak dira.

2. Markatu X batez

Zein energia motak kutsatzen du gehiago ?.

Energia mota berriztagarriak

Energia mota berriztaezinak

3. Markatu X batez hauen artean energia berriztagarriak direnak:

Petrolioa

Ura

Airea

gas naturala

